


VILLA KORALIENEA
D MAILA**LA FE PASEALEKUA 33****Frantzisko Urkola, 1918****Deskribapena**

Villa Nazareth eta Villa El Coreekin batera ilara-etxebizitzaren bolumen bera osatzen du, Urkolak diseinatu zituen horrelako multzoen beste adibide bat alegia; beste multzo bat dago hauek baino beheragoko kota batean, eta beste bat leku honetatik hurbil, Aldapetan. Bitxia bada ere, kasu honetan hiru etxebizitzak era batean bereizten dira ibarbiderako mendebaldeko fatxadan, eta beste batean, berriz, sarrera hartzen duen ekialdekoan, honetan horma piko bat daukate eta. Etxebizitza bakoitzari dagokion zatia teilatu-hegal eta estalkietako aldaketaz bereizten da, eta azken solairuan murrutatuak izateagatik. Beheko solairua eta goiko bi solairu dauzkate, pasealekutik kontaktzen hasita, eta beste solairu bat ere bada erdisoto eran, lorategi plataformarantz. Ilarako hego muturreko etxe honek horma piko erdia partekatzen du hurrengo etxebizitzarekin; horregatik, zutabe dorikoen arteko lau bao daude, bi alegia bakoitzarentzat. Fatxadetako lengoaiak Urkolak asko eta askotan erabilitako klasizismoa erakusten du, ordenei egin erreferentzietan eta arkutxo sailak dauzkaten atikoetako goialdeetan ikusten dugun moduan. Dorretxeetako elementuak ere sartzen ditu, eta bay window-ak lorategirantz. Etxe honek geroago erantsitako atal bat dauka hego fatxadan.

D mailako babes erregimen espezifikoak

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: hego fatxadako erantsia.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, zurezko elementuak, apaindura emokatuak eta estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.